

1-BALIO

PROPOSAMENA

Eskainiko dugun produktua kartoiarekin egindako tapak dituzten koadernoak dira, birziklatze-zentroetan berrerabiliko direnak. Gainera, gure koadernoak bakarrak dira, diseinu originalak erabiltzen baitituzte eta pertsonalizatu egin baitaitezke.

Gure produktuak ingurumenari lagunduko dio eta kutsadura murriztuko du, plastikoa eta ingurumenerako kaltegarriak diren produktuak erabiltzea saihestuz. Espainia da ozeanora plastiko gehien isurtzen duen bigarren herrialdea, eta, horren ondorioz, 134 itsas espezie baino gehiago kaltetu dira; beraz, gure helburua kalte horiek gutxitzea da.

